


Ekimen pilotuaren oinarriak



Bilbao
Silver Lab

Aurkibidea

1. Sarrera	3
2. Zer eskaintzen du BSLk?	3
3. Nori dago BSL zuzenduta?	4
4. Zein konponbide-mota testatu daiteke?	4
5. Parte-hartze prozesua	5
5.1. Eskaera aurkeztea	5
5.2. Ebaluazio teknika	5
5.3. Testatzearen diseinua	6
5.4. Hitzarmena sinatzea	6
5.5. Testatzea	6
5.6. Mentore-laguntza eta ebaluazioa	6
6. Baldintzak eta betebeharrak	6
7. Entitate kolaboratzaileak eta erabiltzaileen profilak	7

1. Sarrera

Bilbao Silver Lab (BSL) Bilbao Ekintzak sustatutako zerbitzua da eta bizitza-luzeraren arloko enpresei, *startupei* eta ekintzailetza-proiektuei aukera ematen die **inguru errealetan konponbide berritzaileak testatzeko**, adinekoekin, zaintzaile profesionalekin eta sektoreko beste eragile batzuekin harreman zuzenean arituz.

Helburu nagusia da adinekoen bizi-kalitatea hobetzera bideratutako **produktuak, zerbitzuak edo negozio-ereduak baliozkotzea** erraztea eta, hala, zahartze aktiboa, osasuntsua eta duina sustatzea. BSL berrikuntza-plataforma irekia da eta eragile publikoen, pribatuen eta komunitarioen lankidetzak artikulatzen du.

2. Zer eskaintzen du BSLk?

BSL testatze-ingurua izateaz harago, konponbideak baliozkotzeko prozesu guztian entitate sustatzaileei laguntzen dien zerbitzu osoa da. Lehenengo harremanetik hasita eta azken ebaluaziora arte, BSLk beharrezko baliabideak, ezagutza eta koordinazioa eskaintzen ditu, testatzea zehatza eta baliagarria izan dadin eta senior publikoaren behar errealetara moldatuta egon dadin.

Zerbitzu honen bidez, enpresek, *startupek* eta pertsona ekintzaileek inguru seguru eta profesionala baliatu dezakete haien produktu edo zerbitzuak benetako erabiltzaileekin frogatzeko eta, hala, merkaturatu aurretik proposamena hobetzeko informazio baliagarria lortzeko.

Zerbitzuak hau barne hartzen du:

- **Benetako erabiltzaileekin eta testatze-inguruetan lan egiteko aukera:** BSLk askotariko adinekoek osatutako laginarekin harremana errazten du. Egoitzekin, eguneko zentroekin, elkarteekin eta gizarte-zerbitzuekin daukan lankidetzari esker, konponbide bakoitzaren profilaren arabera hautatuko da lagina.

Horrez gain, proiektu bakoitzaren beharretara moldatutako testatze-inguruak eskaintzen ditu, hala nola espazio fisikoak, azpiegiturak, erabilera-testuinguruak eta bizitza-luzerara bideratutako konponbideak baliozkotzeko bestelako baliabide garrantzitsuak.
- **Testatzearen diseinua eta koordinazioa:** Bilbao Ekintzako talde teknikoak entitate sustatzaileari laguntzen dio testatze-helburuak zehazten, saioak planifikatzen, espazioak eta profil egokiak identifikatzen eta prozesuaren logistika kudeatzen.
- **Mentore-laguntza espezializatua:** Testatu baino lehen eta ondoren aholkularitza eskaintzen da, zilarrezko ekonomian adituak diren profesionalen laguntzarekin. Horrek froga hobeto egituratzea, emaitzak interpretatzea eta konponbidea xede-merkatura egokitzea ahalbidetzen du.
- **Ebaluazioa eta jarraipena:** Entitate sustatzaileei laguntza ematen diegu testatzearen eragina aztertzen, ikaskuntza gakoak identifikatu ditzaten eta proposamena hobetzeko, moldatzeko edo garatzeko hurrengo pausoak definitu ditzaten.
- **Ikusgarritasuna eta ekosistemarekin lotura:** BSLn parte hartzeak bitza-luzeraren inguruko berrikuntza-sarearen parte izatea ahalbidetzen du, izan ere, eragile publiko,

pribatu eta komunitarioekin harremanak sortzen dira eta testatutako konponbideen ikusgarritasuna areagotzen da.

3. Nori dago BSL zuzenduta?

Senior kolektibora bideratutako konponbideak garatzen edo moldatzen ari diren enpresentzat, *startupentzat*, ekintzaileentzat eta erakundeentzat dago sortuta zerbitzua. Produktuak eta zerbitzuak diseinatzen dituztenen eta erabiliko dituztenen arteko zubi gisa dabil BSL, egituratutako ingurune erreala errazten du eta, bertan, laguntza eskaintzen du proposamenak baliozkotzeko, ikaskuntza esanguratsuak biltzeko eta merkatura egokitzapena areagotzeko.

Bereziki, zerbitzua eragile hauei bideratuta dago:

- Bizitza-luzeraren arloarekin lotura duten negozio-lerro berriak arakatzen ari direnak.
- Senior publikoari bideratutako proposamenak inguru errealean baliozkotu nahi dituztenak.
- Orientazio metodologikoa jasotzeko, testatzea ezartzeko laguntza izateko eta lankidetzak publiko-pribatuaren sarera sartzeko aukera aintzat hartzen dutenak.

Ildo horretan, eskaera bat egin ahal izango dute:

- Silver Economy-n negozio-ildo berriak aztertzen ari diren enpresak
- Adineoentzako produktuak edo zerbitzuak garatzen ari diren pertsona ekintzaileak
- Zahartzearen arloan soluzio bat duten irabazi-asmorik gabeko erakundeak

4. Zein konponbide-mota testatu daiteke?

Bilbao Silver Lab bideratuta dago adinekoen bizi-kalitatea hobetzea edo zaintzaileen lana erraztea helburu duten konponbideetara. Zerbitzuaren xedea da garapen-fase aurreratuan baina oraindik merkaturatu gabe dauden proposamenak baliozkotzea.

Testatzea benetan baliagarria izatea bermatzeko, konponbideek baldintza hauek bete behar dituzte:

- **Prestasun teknologiko maila (TRL 6-7):** Proposamenak fase batean egon behar dira zeinetan baldintza errealean jarduteko **prototipo funtzionala edo gutxieneko produktu bideragarria (MVP)** daukaten. Horrela posible izango da benetako erabiltzaileekin frogak esanguratsuak egitea eta hobetzeko informazio erabilgarria lortzea.
- **Aldez aurretik merkaturatu gabe:** Jada merkaturatu dauden konponbideak baztertzen dira, merkaturatu aurretik baliozkotzen laguntzea baita BSLren helburua.
- **Bizitza-luzerara eta zaintzara bideratuta:** Aintzat hartuko dira gai hauekin lotutako behar errealak jorratzen dituzten konponbideak: zahartze aktiboa, norbanakoen autonomia, ongizatea, zaintza, mugikortasuna, osasun mentala edo gizarte-laguntza.
- **Xede-publikoari egokituta:** Proposamenen diseinuek kontuan izan behar dituzte adinekoen ezaugarriak, ahalmenak eta lehentasunak, eta baita zaintzaileen ere, izan testuinguru formalean zein informalean.



BSLk formatu-mota zabala har dezake: produktu fisikoak, zerbitzuak, aplikazio digitalak, metodologiak, gailu teknologikoak edo negozio-ereduak. Garrantzitsuena da konponbidea zerbitzuaren helburuekin bat etortzea eta baldintza errealetan testatu ahal izatea.

5. Parte-hartze prozesua

Bilbao Silver Lab urtebeteko aldian erabilgarri dagoen zerbitzua da, 2025eko urriaren 20tik aurrera. Hala, pertsona edo entitate sustatzaileek konponbideak testatzeko unerik aproposenean aurkeztu ditzakete. Prozesua bizia eta gardena izateko eta konponbide bakoitzaren beharretara moldatuta egoteko dago diseinatuta.

5.1. Eskaera aurkeztea

BSLn parte hartzeko interesa duten entitateek eskaera-galdetegia (1. eranskina) bete eta bidali beharko dute, behintzat informazio hau biltzen duen memoria teknikoarekin batera:

- Testatzeko produktuaren, zerbitzuaren edo negozio-ereduaren deskribapena.
- Prestasun teknologiko maila (TRL) eta prototipoa edo gutxieneko produktu bideragarria (MVP) zehaztea
- Testatzearen helburuak
- Nahi duten testatze-mota (egitura, iraupena, formatua)
- Eskatutako erabiltzaile-kopurua eta profila
- Testatzea egiteko beharrezko baliabideak

Memoriari esker, BSLko talde teknikoak proposamena ulertu eta zerbitzuaren markoan testatzeko egokitasuna baloratu ahal izango du. Horrez gain, proposamena erabiltzeko bideragarritasuna baloratzen laguntzen du. Batzuetan, zerbitzuaren helburuekin bat datozen konponbide interesgarriak jaso arren, ezin dira testatu, profil egokiko erabiltzaileek ezin dutelako edo espazio fisikoen zein baliabide logistikoen mugak direla eta.

5.2. Ebaluazio teknikoa

Behin eskaera jasota, BSLko batzorde teknikoak —Bilbao Ekintzako langileek eta ekosistemako eragile adituek eratua— proposamena aztertuko dute zenbait irizpideren arabera, hala nola:

- Testatzearen bideragarritasuna.
- Proposamenaren prestasun-maila.
- Xede-publikoari egokitzapena.

Ebaluazioaren arabera erabakia entitate bultzatzaileari jakinaraziko zaio. Ez onartzekotan, desestimazioa arrazoituko da, eta, dagokionean, gomendioak edo zuzentzeko ekintzak proposatuko dira, ekimenak hautemandako gabeziak konpon ditzan eta, hala badagokio, berriro aurkez dezan bere hautagaitza.

5.3. Testatzearen diseinua

Proposamena onartzekotan, froga-protokoloa definitzeko lankidetzafasea abiatuko da. Dokumentu honek jasotzen ditu inplikaturako alde guztien helburuak, baldintzak, konpromisoak eta eskubideak.

Erabiltzaileen profil aproposenak identifikatuko dira, entitate kolaboratzaileengana joko da eta testatzeko espazioak, denborak eta dinamikak adostuko dira.

5.4. Hitzarmena sinatzea

Testatzen hasi aurretik, froga-protokoloaren akordioa formalizatuko dute inplikaturako aldeek:

- Entitate sustatzailea, testatzeko konponbidearen arduraduna.
- Bilbao Ekintza, zerbitzua ematen duen entitate gisa.
- Erabiltzaileen lagina edo testatzeko espazioa jarriko duten entitate kolaboratzaileak.

Hitzarmen horrek prozesuaren konpromisoak, erantzukizunak, parte hartzeko baldintzak eta alderdi etikoak jasotzen ditu, alde guztiak modu garden eta seguruan lankidetzan aritzea bermatzeko. Erabiltzaile parte-hartzaileen eskubideak ere zehazten ditu, eta baita testatzean erabilitako eta jasotako datuen erabilera- eta konfidentzialtasun-baldintzak ere.

5.5. Testatzea

Bilbao Ekintza bideratzaile aktiboa da, espazioak, taldeak edo denborak kudeatzen ditu eta modu etiko, seguru eta profesionalean testatzea bermatzen du. Entitate sustatzailea prozesu osoan zehar laguntzen du, besteak beste, gorabeherak konpontzen, testatzearen esperientzia egituratua eta aberasgarria izan dadin.

5.6. Mentore-laguntza eta ebaluazioa

Testatu baino lehen eta ondoren, aholkularitza espezializatua eskaintzen da froga egituratzeko, hipotesiak baliozkotzeko, emaitzak interpretatzeko eta konponbidea merkatura egokitzeko. Amaitzean, entitate sustatzaileari prozesuaren ebaluazio kuantitatibo eta kualitatiboa eskatzen zaio.

6. Baldintzak eta betebeharrak

Zerbitzu honen xedea da sustatzaileen bidez benetako balioa ematea. Horregatik, sustatzaileek jarrera aktiboa, arduratsua eta konprometitua izatea espero da, lortu nahi diren helburuekin bat etorritik.

Entitate sustatzaileek konpromiso hauek hartu behar dituzte:

- Testatzearen diseinuan eta gauzatzean aktiboki parte hartzea.
- Zerbitzuaren hastapen etikoak errespetatzea, bereziki adinekoekiko jokaerari dagokionez.

- Testatzearen amaierako ebaluazio kuantitatibo eta kualitatiboa aurkeztea, ikaskuntzak, emaitzak eta ondorengo pausoak adierazita.
- Emaizten zabalpenean eta zerbitzuaren etengabeko hobekuntzan laguntzea.

Bilbao Silver Lab zerbitzuaren kalitatea, hein handi batean, testatzearen sustatzaileen konpromisoaren arabera da. Hortaz, garrantzitsua da sustatzaile bakoitzak bere eginkizuna arduraz eta gogotsu hartzea, izan ere, bere ekarpenak zerbitzuaren garapenean eta hautematean eragin zuzena dauka.

Horrez gain, eskatzaileek ondorengo betebeharrak bete beharko dituzte, eta horiek hautaketa-prozesuan egiaztatuko dira:

- Jarduteko gaitasun osoa izatea.
- Administrazio Publikoarekin kontratatzeke oztopo diren egoeraren batean ez egotea.
- Administrazioekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean izatea, Bilboko Udala barne.

Bestalde, onartzen diren eskaeren kopurua Bilbao Silver Lab proiektuaren mentoring-kontratuari esleitutako aurrekontuaren arabera mugatuko da. Beraz, hautagaitzen onarpena ezarritako muga ekonomikoen menpe egongo da, eta lehentasuna emango zaie oinarri hauetan definitutako helburuetara hobekien egokitzen diren proposamenei.

Eskaera bakoitzak testatze bakarra egitea sustatuko da, eskuragarri dauden baliabideen erabilera optimizatzeko eta ekimen onuradunen aniztasun handiagoa bermatzeko. Hala ere, aurrekontu erabilgarri nahikoa egonez gero, baloratu ahal izango da erakunde beraren parte-hartzea behin baino gehiagotan, betiere testatze berriak interes eta bideragarritasun nahikoa justifikatzen baditu.

7. Entitate kolaboratzaileak eta erabiltzaileen profilak

Egoitzekin, eguneko zentroekin, adinekoen elkarteekin eta gizarte-zerbitzuekin lankidetzahitzarmenak izateari esker, BSLk askotariko lagin adierazgarria dauka eta hauek biltzen ditu:

- Adineko pertsona autonomoak
- Teknologiarekin aritzen diren adinekoak
- Mendekotasuna izaten hasi diren pertsonak
- Mendekotasuna duten pertsonak
- Osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonak
- Zaintzaileak (formalak eta informalak)

Halaber, proposamen bakoitzaren beharrian zehatzen arabera, BSLk kontuan izango du testatzeko beste baliabide osagarri batzuk emateko aukera, hala nola espazioak, azpiegiturak edo baldintza bereziak, betiere proiektuaren markoan erabilgarri baldin badaude eta bideragarriak badira.